



1415/2021 EBAZPENA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ ONDORERIK GABE UZTEN DEN 379/2020 EBAZPENA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAN LETRADU KORPORATIBO LANPOSTU BAT (LETRADUA KATEGORIA) BEHIN BETIKO BARNE MUGIKORTASUNAREN / ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN / ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEARI BURUZKOA.

Lehenengoa. Giza Baliabideen zuzendariaren 379/2020 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetza Nagusian Letradu Korporatibo lanpostu bat (Letradua kategoria) behin betiko barne mugikortasunaren / aldi baterako barne sustapenaren / zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko. Deialdi hori izapidetze-fasean dago une honetan.

Bigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak otsailaren 4an emandako 47/2021 Epaiaren bidez, baliogabe deklaratu da Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen 186/2005 Dekretuaren II. eranskina eta hura aldatzea ezartzen da Letradu Korporatiboaren lanpostu funtzionalari dagokionez. Hala, hura Zerbitzuburu Korporatiboa-1 lanpostu funtzionalarekin parekatuta egokitu behar dela deklaratu da (28. maila), dagozkion ordainsariekin. 2021eko apirilaren 12ko Dekretuaren bidez, epai hori irmo deklaratu da.

Hirugarrena. Epai judizial irmoak funtsezko aldaketa dakar 379/2020 Ebazpenaren bidez egindako deialdiko lanpostuaren ezaugarrietan. Epai horrek Lanpostu Funtzionalen Dekretua aldatzeko agintzen du; hain zuzen, agindu egiten du Letradu Korporatiboaren lanpostua Zerbitzuburu Korporatiboa-1 lanpostu funtzionalarekin parekatuta gehitzeko dekretuaren II. eranskinean, deklarazio horren ondorekin.

Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 4ko 4/2021 Instrukzioak lanpostu horiek aldi baterako betetzeko deialdi-sistema espezifiko bat ezarri du aldi baterako, zeinaren bidez aukera ematen den lanpostuaren eginkizunak behar bezala betetzeko ezinbestekoak diren izangaien ezagutza espezifikoak ebaluatzeko.

Lanpostuaren ezaugarri garrantzitsuak gerora aldatu direnez eta deialdi-sistema espezifiko bat ezarri denez, komeni da hainbat ezaugarritako lanpostu bat betetzeko deialdia ondorerik gabe uztea. Horrela, hobeto berrmatuko da izangaien ezagutza espezifikoaren ebaluazio egokia eta lehia askea, une honetan aplikagarriak zaizkion ezaugarriekin eskainiko baita lanpostua.

Laugarrena. Hori guztia dela eta, deialdia ondorerik gabe utziko da, eta beste deialdi bat egingo, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren azaroaren 4ko 4/2021 Instrukzioan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. 379/2020 Ebazpenaren bidez hasitako deialdian parte hartzeko eskaera aurkeztu duten pertsonak ez dute izango eskuratutako eskubiderik, prozesua izapidetze-fasean dagoelako eta, beraz, ez dagoelako eskatzaileetako baten aldeko eskubiderik. Pertsona horiek, egoki iritziz gero, deialdi berrian parte hartu ahal izango dute.

Eta horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD


Lehenengoa. Ondorerik gabe uztea Giza Baliabideen zuzendariaren 379/2020 Ebazpena, zeinaren bidez deialdia egin den Osakidetzako Zuzendaritza Nagusian Letradu Korporatibo lanpostu bat (Letradua kategoria) behin betiko barne mugikortasunaren / aldi baterako barne sustapenaren / zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko.

Bigarrena. Ebazpena jakinaraztea 379/2020 Ebazpenaren bidez hasitako deialdian parte hartzeko eskaera aurkeztu duten pertsona guztiei.

Hirugarrena. Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, hura argitaratu edo zuzenean jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 5a



Sin.: María Rosa Pérez Esquerdo

OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA